



2AU3 AUTOMOZIOA

AUGT/0295 GAINAZALEN TRATAMENDUA ETA ESTALDURA

AUKL/0297 IBILGAILUEN MANTENTZE LANEN KUDEAKETA ETA LOGISTIKA

Iraupena: 59 ordu
(2024/11/15)

***Taldeak: BAKARKAKO ERRONKA /
TALDE OSOAREKIN EKIPAMENDUA
ETA ESPAZIOA KUDEATU
BEHARRA***

TAILERREKO PIEZEN MARGOKETA

Hasiera data: 2024-10-02

Antolaketa:

**"AUGT eta AUKL modulu arteko
erronka"**

Helburu orokorrak

- 1.** Ibilgailuak, ekipoak eta tresnak mantendu eta konpontzeko lanekin lotutako informazioa eta, oro har, hizkuntza sinboliko guztia interpretatzea, konponketarako aurrediagnostikoa lortzeko.
- 5.** Gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko prozesuak aztertzea, egin beharreko mantentze-lana edo konponketa zehazteko, horretarako beharrezkoak diren eragiketak ezarrita.
- 10.** Biltegiko izakinak kontuan izanda salerosketa-aldagaiak aztertzea, ordezeko piezen arloa kudeatzeko.
- 12.** Laneko segurtasunari eta ingurumenari buruz indarrean dagoen araudia ezarritako dokumentazioaren arabera interpretatzea, hura betetzen den ikuskatzeko.
- 13.** Enpresaren egitura hierarkikoa aztertzea, eta lan-taldeko kideetako bakoitzaren rolak eta erantzukizunak identifikatzea, lan-taldea antolatzearen eta koordinatzearen.
- 14.** Produkzio-prozesu bateko lan-jarduerak balioestea eta prozesu orokorrean egiten duten ekarpena identifikatzea, lan-taldeetan parte hartzeko eta produkzio-helburuak lortzeko.

Ikaskuntza emaitzak

Mod.8/AUGT/0295 GAINAZALEN TRATAMENDUA ETA ESTALDURA

- IE8.1** Aplikatu beharreko konponketa-prozesua zehazten du, eta, horretarako, gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzen ezaugarriak aztertzen ditu.
- IE8.2** Gainazalak babestu, berdindu, zigilatu eta soinu-gabetzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, lan-prozedurak interpretatzen ditu.
- IE8.4** Gainazalak txukuntzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, emandako zehaztapenak eta zehaztutako prozedurak interpretatzen ditu.

Mod.9/AUKL/0297 IBILGAILUEN MANTENTZE LANEN KUDEAKETA ETA LOGISTIKA

- IE9.1** Ibilgailuak mantentzeko planak egiten ditu, eta, horretarako, esku hartzen duten aldagaiak aztertzen ditu, eta metodoak eta denborak kontuan hartzen ditu.
- IE9.2** Lana banatzeko planak prestatzen ditu, eta, horretarako, lan-kargak instalazioen eta ekipoen eraginkortasunarekin lotzen ditu.
- IE9.5** Ibilgailuak mantendu eta konpontzeko eragiketek sorrarazitako hondakinen

tratamendua kudeatzen du, eta, horretarako, agente kutsatzaileak identifikatu eta horiek ingurumenaren gainean dituzten ondorioak deskribatzen ditu.

IE9.7 Informatika-programen bidez, txostenak, aurrekontuak eta bestelako dokumentuak prestatzen ditu, eta horien emaitzak aztertzen ditu.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

- Autonomia
- Lanerako jarrera
- Lan taldea
- Ahozko eta ez ahoko komunikazio gaitasunak

Erronka

Erronka definitu: *autoen pintaketan ematen diren prozesu ezberdinak analizatu eta ikasle bakoitzak beharrezko direnak exekutatuko ditu autoko pieza batean. Exekuzio aurretik, lanen kronograma eta aurrekontua egingo ditu eta ondoren bere produktibitate eta efizientzia neurtuko ditu.*

Egin beharreko lanak laburki:

- *Pintura tailerreko prozesuak analizatu.*
- *Konpondu beharreko piezaren azterketa.*
- *Egin beharreko lanen planning-a.*
- *Aurrekontuaren prestaketa*
- *Konponketen exekuzioa*
- *Konponketaren kostuaren kalkulu erreala.*
- *Tailerrean egindako lanaren aurrez aurreko defentsa*

Erronka definitu:

AUGT:

Erronkari hasiera emateko:

Erronkari hasiera emateko, irakasleak margoketa prozesuan oinarrizkoak diren puntu batzuk markatuko ditu. Ikasleek apunteak hartu beharko dituzte, egindako prozesua pausoz pauso beraien piezen pintaketan erabiltzeko.

Ikasleek puntu hauek kontuan edukita tailerrean prozesu ezberdinak landu beharko dituzte

BAKARKA:

1) Egokituta dagoen txapa baten; mastika, prestagaia eta pintura monokapa exekutatuko dituzte.

2) Aurreko hegal batean; mastika, prestagaia eta pintura monokapa edo bikapa exekutatu

dituzte.

3)Kapo edo ate batean; mastika, prestagaia eta pintura bikapa exekutatu dituzte.

Konpondutako pieza bakoitzarekin, jarraitutako lan gidoia bete beharko du ikasle bakoitzak. Bertan, lan bakoitzean erabilitako ekipo, erraminta, lixa, produktu, pistola eta EPIak jarri beharko dira.

Honekin batera ikasleek analisi bat egin beharko dute **TALDEKA**. Honetarako gai batzuk aurkeztuko zaizkie eta gai hauetan partaide zenbaki posiblea ezarrita egongo da. Ikasleak taldekatu eta gaiak banatu beharko dituzte analisia burutzeko. Gaiak ondorengo hauek dira:

ANALISIRAKO GAIK	PARTAIDEAK
1 INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUA	<ul style="list-style-type: none">• AROA• LIHER• ESTEBAN• RAÚL
2 KORROSIOA IBILGAILUETAN ETA KORROSIOAREN AURKAKO BABESAK	<ul style="list-style-type: none">• NIMROD• HERAITZ• MARKEL• ANDONI FERNANDEZ
3 IBILGAILUAREN GERUZAK FABRIKAZIOAN	<ul style="list-style-type: none">• ANDONI RECUERO• UNAI ARIZ• JORGE• UNAI JOAQUÍN
4 IBILGAILUAREN GERUZAK KONPONKETAN MASTIKA MOTAK, INPRIMAZIO MOTAK, PRESTAGAI MOTAK	<ul style="list-style-type: none">• IRATI• ANTXON• DANIEL
5 PINTURA MOTAK ETA HAUEN KONPOSIZIOA	<ul style="list-style-type: none">• LOREA• ASIER• ANDONI CASTRO• ILLART

AUKL:

Lan bezala entregatuko den memorian, ondorengo puntuak landuta agertu beharko dira:

Piezaren konponketaren aurrekontua egin (Banaka): (I.E. 9.7)

- AUDATEX programa ikasteko ariketak egin.
- Audatex programa erabiliz aurrekontua egin.

Piezaren konponketaren planning a egin (Taldeka): (I.E. 9.2)

- Gantt moduko diagrama erabiliz, konponketaren pausoen kronograma egin.

Lan prozesuaren erregistroa sortu: (Banaka) (I.E. 9.1), (I.E. 9.6)

- Pieza konpontzeko jarraituriko pausuak adierazi eta bakoitza deskribatu.
- Pauso bakoitzean egindakoaren argazkia atera.
- Pauso bakoitzean erabilitako gune eta erremintak adierazi.
- Pauso bakoitzean beharrezkoa balitz, egin den mantenua adierazi (gune eta erremintena).
- Pauso bakoitzean erabili duzun materiala eta kantitatea adierazi.
- Pauso bakoitza aurrera eramateko behar izan duzuen denbora adierazi (itxarote denborak kontuan hartu).
- Erabili diren materialen fitxa teknikoa eta segurtasun fitxak, zehazten diren arriskuen deskribapena eta erabili beharreko babes neurriak adieraziz.

Sortu diren hondakinen kudeaketa (Banaka): (I.E. 9.5)

- Prozesuan sorturiko hondakinak adierazi eta sailkatu.
- Bakoitzaren kudeaketa prozesua deskribatu.

Prozesuan erabilitako gune eta erreminten mantenua adierazi eta kostua kalkulatu (Banaka): (I.E. 9.2)

Konponketa prozesuaren kostua kalkulatu (Banaka): (I.E. 9.2)

Konponketan izan duzun trebezia neurtu prozesuan lorturiko hainbat informazio erabiliz (Banaka): (I.E. 9.2)

- Kalkulatu lan gunetan izan duzun eraginkortasun edo efizientzia.
- Eraginkortasun eta produktibitatearen inguruan planteaturiko ariketak egin.

Ebaluatu

EBALUAKETA

- *Feedback-aren bitartez, erronkaren prozesuan zehar ondo garatu dena erakutsi eta identifikatutako hobekuntza eremuak azaldu*
- *Ebaluazioa 360° ko ikuspuntu batetik bakarkako zein taldeko emaitzen, jardueren eta jarreraren ebidentzietan oinarrituta egin*
- *Emaitzak hausnarketa elementu bezala erabili, hurrengo Erronkara begira hobekuntza eta bilakaera konpromiso batzuk finkatzeko.*

"Kalifikatuko diren atalak azalduko dira: Gaitasun teknikoak (I.E-kin erlazionatuak) eta zeharkako gaitasunak."

Taula honetako %ak Tknikak proposaturikoak dira. Erronkaren arabera aldatu daitezkeenak.				Irakasleak	Ikasleak bere buruari	Ikasleak ikaskideei	Kanpo ebaluazioa
				%	%	%	*
Gaitasun teknikoak	60%			100%			
Zeharkako gaitasunak	40%	Lan jarrera	30%	70%	10%	20%	
		Autonomia					
		Komunikazioa					

Ebaluatze fasea ikasle-kalifikazioak ekarriko ditu eta zehaztutako irizpideak bete beharko ditu!!

Baliabideak

Erronka hau burutzeko informatika gela bat internetera konexioarekin eta pintura tailerrean dauden instalazio eta ekipamenduak izango dira ikaslearen esku. Ikasleek Audatex programako hainbat erabiltzaile izango dituzte aurrekontuak egiten laguntzeko:

Sarbidea erabiltzaile gustientzat: **Solera.2023**

Audatex programare Erabiltzaileak:

cifparetxabaleta@formacion1.es
cifparetxabaleta@formacion2.es
cifparetxabaleta@formacion3.es
cifparetxabaleta@formacion4.es
cifparetxabaleta@formacion5.es
cifparetxabaleta@formacion6.es
cifparetxabaleta@formacion7.es
cifparetxabaleta@formacion8.es
cifparetxabaleta@formacion9.es

cifparetxabaleta@formacion10.es
cifparetxabaleta@formacion11.es
cifparetxabaleta@formacion12.es
cifparetxabaleta@formacion13.es
cifparetxabaleta@formacion14.es
cifparetxabaleta@formacion15.es
cifparetxabaleta@formacion16.es

Denbora antolaketa

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:00 – 9:00		AUGT		AUGT	
9:00 – 10:00		AUGT		AUGT	
10:00 –11:00		AUGT	AUKL	AUGT	
ATSEDEN.					
11:30 –12:30		AUGT			AUKL
12:30– 13:30		AUGT			AUKL
13:30 –14:30					